



Liburutegi Nagusia Alderdi Eder

2022ko irailaren 13a

<http://www.donostiakultura.com/liburutegiak/>

Anton Tsekho

(Taganrog, Errusia, 1860 - Badenweiler, Alemania, 1904)

1860an jaio zen Anton Pavlovitx Tsekho, Taganrog-en, Errusiaren hegoaldean, Azov itsasoko portu batean. Sei senidetatik hirugarrena zen. Aita aldeko aitona jopua zen jatorriz, baina diru mordoska bat aurreratzea lortu zuen eta askatasuna erosteko gauza izan zen. Antonen aitak - dendaria, erlijiozale porrokatua, zurruna eta intolerantea- gogortasun bereziz hezi zituen bere seme-alabak.

Etxeko dendan ikasi zuen Tsekho gazteak, inguruan zuen gizarte errealtateari buruzko lehen ikasgaia. Baina, 1876an, aitaren merkataritzarako ezgaitasuna zela-eta, negozioak porrot egin zuen, eta familia Moskura joan zen bizitzera. Anton Taganrog-en geratu zen bigarren mailako ikasketak bukatu arte. Osabaren etxean bizi izan zen, klaseak eman zituen eta beste lan batzuetan ere aritu zen, ikasketak ordaindu ahal izateko. Ikasketak amaitu zituenean, etxekoekin biltzera joan zen, eta familiari loturik segitu zuen bizitza osoan, hartaraino, ezen, Anton bera izan baitzen familia mantendu zuena. 1880an medikuntza karrera hasi zuen Moskun, eta 1884an amaitu zuen. Urte hartan izan zuen lehenengo hemoptisi atakea (odola bota zuen ahotik), eta orduan hasi zuen heriotzarekin amaituko zen tuberkulosiaren aurkako borroka luzea.

Medikuntzako ikasle zela Tsekho umorezko kontakizun laburrak idazten hasi zen familiaren ekonomiari laguntzeko, eta lan horri esker nolabaiteko ospea lortu zuen kronikari gisa. hainbat argitalpenekin idazten eta kolaboratzen jarraitu zuen, **Pushkin** Sari entzutetsua lortuz **Ilunabarrean** (1886) bere kontakizunen laburpenarekin.


1885ean **Ehizaldi tragiko bat** argitaratu zuen: intrigako eleberri bateko egoerak eta planteamenduak zituen kontakizun luze bat.

Urte hartan bertan, ez zuen lortu Errege bidean izeneko antzerki lana estreinatzea, zentsurak debekatu baitzuen. Baina hurrengo urtea izan zen, 1886a, Tsekhoven literaturaren bilakaerako data giltzarria. 1886an argitaratu zuen **Ehiztaria** izeneko kontakizun laburra, kontzientzia estetiko berri baten adierazgarri.

1890eko hamarraldian, ordurako Tsekhoven ospea finkaturik zela eta haren obraren garrantzia guztiek aitortzen zutelako, asko jaitzi zen -kopuruz, baina ez kalitatez- errusiar idazlearen ipuin produkzioa. Arrazoi bat baino gehiagorengatik gertatu zen hori : testu luzeagoak idaztea nahiago izan zuelako ; antzerkia idazteko interes handiagoa piztu zitzaielako ; eta, gaixotasuna zela-eta, erietxe edo sendategietan egonaldi luzeak egin zituelako, lehenik, Melikho von -1892an erosi zuen etxean-, eta gero, Yaltan.

1899an kontratu bat izenpetu zuen bere idazlan guztiak argitaratzeko. Argitalpen horretan 265 kontakizun bildu zituen, baina 188letik 1887ra bitartean argitaratutako ipuin asko falta ziren. Garaitu hartan beste aldaketa handi bat gertatu zen Tsekhoven bizitzan : urte askoz emakume ezkondu batenganako amodio ezinezkoaren mende egon ondoren, 1898an, Olga Knipper ezagutu zuen, Tsekhoven beraren antzerki lan batzuetan aritu zen antzezle bat, eta harekin ezkondu zen, 1904an. Baina ez zuen asko iraun Tsekhoven ezkon bizitzak, handik hiru urtera, 1904ko uztailaren 2an, hil baitzen Alemaniako Badenweiler izeneko bainuetxean.

31 ipuin



Errusiako bere garaiko gizartearen erretratu ezin finagoak egiteagatik nabarmendu zen Anton Txekhov, baina, klasiko handien marka betez, nonahiko eta noiznahiko irakurleek topatzen dituzte haren orrietan identifikatzeko moduko pertsonaiak, ezaugarriak, egoerak... halako moldez non ipuingintza modernoaren aita eta maisutzat aitortzen den aho batez.

Umoretsuak dira itxura batean Txekhoven istorio gehienak: gizakion makurkeriaren bizkar irri eginarazten duten ipuin jostari eta arinak; barnerago sartuz, ordea, guztiz trebea da gizon-emakumeon saminak agertzen ere, eta sentimendu sakonez salatzen ditu injustiziaren menpe sufritzen dutenen minak.

Euskaratutako idazlanak

Ipuinak (1990) **N CHE**

31 ipuin (2022) **N CHE**

Kritikak esandakoak

“... Iker Sanchok euskarara ekarritako Txekhoven 31 ipuin dakartza obrak, denak ere idazlearen bizitza guztian zehar idatzitakoak, hurrenkera kronologikoan antolatuta. Idazle bezala idatzitako lehenengoek irekitzen dute bilduma, 1880an hasi eta gutxi gorabehera 1886ra arte ondutakoak, hain zuzen. Lehenengo hauek salto kronologikoan ez ezik, badute estilistikoki ere alderik idazlearen azken etapan idatzitakoekin konparatuta: nabarmenki laburragoak dira. Ipuin “gazteago” hauen ondotik, irakurleak bigarren aldiko konposizio luzeagoak ere ezagutzeko aukera izango du, alegia, hasi 1886an eta 1900. urtera artekoak. Horrela, bada, esan daiteke mintzagai dugun obrak ez dituela Txekhoven ipuinak beste barik biltzen, idazlearen beraren bilakaeraren berri ere ematen digu; bere idazketa prozesuaren nondik norakoen lekuko egiten gaitu. Anton Txekhoven idazle bitakora. Dena den, aurretik nahiz atzetik hasi irakurtzen, alegia edo lehen ipuinetatik edo idazleak ondutako azkenetatik, berdin-berdin antzemango du irakurle finak Anton Txekhov dela une oro, bere idazketa ezaugarritzen duten alderdiak konstanteak baitira bere unibertso literario guztian.

...Aipatutakoaz gain, obrak Iker Sanchok idatzitako hitzurre luze eta zabala dakar, kritiko baten betaurrekoak jantzirik, Anton Txekhoven literaturaren erradiografia, hain zuzen. Oso argigarria iruditzen zait, bildumari eite akademikoa ematen baitio, irakurleari testuak interpretatzeko pistak emateaz gainera. Alabaina, irakurleak aurkituko duen lehen kapitulua izanik, susmoa dut ez ote dion gehiegi baldintzatuko irakurketa. Nire gomendioa, hortaz, irakurle: utzi azalpenok bukaerarako.”

Nagore Fernandez / Berria, 2022-05-29

“...Insaustiren hitzetan, Anton Txekhov Errusiako bere garaiko gizartearen erretratu ezin finagoak egiteagatik nabarmendu zen, baina errealitate horren deskripzioak nonahiko eta noiznahiko irakurleek topatzen dituzte haren orrietan: pertsonaiak, ezaugarriak, egoerak... “Haren estiloa umoretsua eta irakurterraza da, baina kosta egiten zaigu irribarretik barrera igarotzea, umorez deskribatzen dituen egoerak sarritan ez direlako barregarriak, ezpada tristeak, itxaropenerako zirrikiturik uzten ez dutenak”, adierazi du Sanchok liburuaren hitzurrean. Izan ere, ipuin guzti hauen gehiengoan, protagonistek sufritu egiten dute. Dela ezkondu berria den bikote bat, dela lanpostuz igo duten langile bat, denek pairatzen dituzte berekoikeriaren eta indibidualismoaren hoztasunaren ondorioak. Gizarte oso baten erradiografia da.

Badaude elementu batzuk garrantzi berezia daukatenak Txekhoven istorioetan. Adibidez, aita. Itzultzaileak zehazten duen moduan, irudi hori maiz agertzen da, "eta ia inoiz ez onerako, beti ezaugarri ezkorrekin loturik: autoritarismoa, laztasuna, porrota, frustrazioa, alkoholismoa. Badago ipuin bat bereziki argi ikusten dena, liburuan Familiaburua izenburua duena. Ipuin hau, hain zuzen, izan zen lehena euskaratzen. 1956an, Guraso zintzoa bezala itzuli zen, eta zantzu guztien arabera, Koldo Mitxelena izan zen horren itzultzailea. Aitarena, bere askatasuna erosi zuen gizaki baten istorioa da. Esklabo jaio zen eta bere buruaren jabe jaio ez zen pertsona baten semea izateak eragin handia izan zuen Txekhovengan.

Baina badira beste elementu batzuk ere ipuinetan maiz agertzen direnak, zeintzuk metafora gisa erabiltzen dituen bere garaiko injustiziak salatzen: bizi-baldintzak, eskubideen urraketak, desberdintasun sozialak, funtzionarioen mundua, itxurakeria, hipokrisia, botere-gehiegikeriak, arrazakeria, emakume eta haurren egoera lazgarria... "Gizartearen miseria morala argitara ateratzen du: boteretsuen aurrean otzan eta menpekoekin harrokeriaz ibiltzen diren pertsonaiak aurkezten dizkigu; batzuetan gorrotagarriak egiten zaizkigu, baina beste batzuetan haiengatik nolabaiteko enpatia sentitzera ere iristen gara, ulertzen dugulako haien jokabidea beldurrak eragindakoa dela. Oso litekeena da horrelakoetan irakurle gehienek bere buruari galdetzea: egoera horretan banengo, Txekhoven pertsonaiek baino ausartago jokatu ote nuke?", iradoki du Insaustik... "

Pello Zupiria / Bilbao, 2022-05

Erabilitako iturriak

Wikipedia

https://eu.wikipedia.org/wiki/Anton_Txekhov

Euskadi.eus

https://www.euskadi.eus/web01-s2oga/es/contenidos/articulo/c1703/eu_d1703070/1703070.html

Kritiken hemeroteca

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8576>

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8558>